

Barne Ekintzailletza eta Berrikuntza Irekian Master programa (MINN) Indian hasiko da 2015ean.

2014/08/19

MINN Mondragon Team Academy (MTA)-MONDRAGON UNIBERTSITATEAK sortutako master programa bat da. Programa hau 3 nazioarteko kokapenetan garatuko da urtero (Europa, Txina eta India).

MINN Programa 2010ean hasi zen Euskal Herrian, eta Mondragon Korporazioko Ezagutza Taldearen babesa jaso du, beti ere beren erakundeak eraldatzeko gai izango diren lider exekutiboak sortzeko helburuarekin, bai berrikuntza proiektuen bitartez enpresa berriak sortuz(ekintzailletasuna) edota spin-offen bitartez (barne ekintzailletza).

Master global honen programa MONDRAGON UNIBERTSITATEA eta MIDAS-en arteko lankidetzaren ondorioz eman da. MIDAS Punen aurkitzen den erakunde bat da, ekintzailletza bultzatzen duena eta Kudeaketa, Berrikuntza, Diseinua, Artea eta Gizarte Zientzien akronimoa da bere izena. MIDAS-en, parte-hartzaileek programa zorrotz bat jarraitzen dute beren trebetasun eta jarrerak garatzeko, etorkizunean ekintzaile arrakastatsu bihurtzeko.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA eta MIDAS-en arteko akordioak Punen MTAREN laboratoriorik bat sortzea suposatzen du, euskal-India berrikuntza sareko ekimen bat izango litzateke Indian ekintzailletzaren arloa sustatzeko asmoarekin. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bere europar hezkuntza eredu berritzailea partekatu du ekintzailletza arloan MIDAS-ekin, indiar gazteak eta beraien artean indiar korporazioetako enpresariak Punen sortutako laborategia erabili dezaten enpresa berriak eta spin-offak sortzeko.

MIDAS-i buruzko informazio gehiago: www.midasindia.net

